

# Aldaketak autobusetan

**O**hi bezala, Aste Nagusian aldaketak izango dira autobus zerbitzuetan. Lehenik, hainbat zerbitzuek geltoki berriak izango dituzte arratsalde edo iluntze aldera.

Hilaren 14tik 20ra bitartean, Bulebarra egunero itxiko da 20.00etatik aurrera. Igandean, hilak 13, berriz, lehenago moztuko da trafikoa Bulebarrean, 18.00etan alegia. Hori dela eta, Bulebarra itxita dagoen bitartean, bertako geltokiak beste kale batzuetara eramango dira. Antigua, Ibaeta, Añorga eta Igeldora doazen zerbitzuek, hala nola Amara-Sanitaria eta Amara-Martutenek, Okendo kalean izango dute geltoki berria. Intxaurren, Gros eta Egiara doazen zerbitzuek, berriz, Legazpin izango dute geltokia. Bestalde, Peñaflovida kalea, su artifizialak direla eta, 21.30etan itxiko da trafikoarentzat egunero. Ondorioz, Seminario eta Amara-Mutualidades zerbitzuetako



Urtero bezala, hainbat aldaketa izango da Aste Nagusian autobus zerbitzuetan

geltokiak Okendon jarriko dira. Aieteko geltokia ere San Bartolomera eramango da ordu horretatik aurrera.

Geltoki aldaketoz gain, gau autobusek ohi baino zerbitzu zabalagoak egingo dituzte. Egunero hartu ahal izango dira eta 04.00ak arte.

## Geltoki aldaketak

AUTOBUS ZERBITZUA	GELTOKI BERRIA
Benta Berri	Okendo kalea
Igeldo	Okendo kalea
Añorga	Okendo kalea
Gros-Intxaurren	Legazpi kalea
Egia-Intxaurren	Legazpi kalea
Hego Intxaurren	Legazpi kalea
Amara-Martutene	Okendo kalea
Amara-Ciudad Sanitaria	Okendo kalea
Seminarioa	Okendo kalea
Amara-Mutualidades	Okendo kalea
Aiete	San Bartolome kalea

## MOKO eta KARMELE

